



Mendeberrri

MEDEBALDEA (BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA)

10 ALEA •

2005eko ABENDUA



✓ **BETAGARRI,**
*hamar urte kontzertuz kontzertu
daramatzan taldea*



✓ **PACO IBAÑEZ,**
*Jesus Guridi Gasteizko
Kontserbatorioko zuzendaria*

▼ **INES ELKOROBARRUTIA:**
*"Nerabeekin lan egitea beti
izan da konplexua"*

- Tabakoa Mendebaldean
- Andoni Aguilera, Jessica García, Esti García eta Joana Torrecilla ikasleak
- Gurasoen txokoa
- Etorkinak Euskal Herrian
- Mendebaldea kantari
- Inkesta
- Eskolako Agenda 21
- Denbora-pasak



✓ **MEDEBALDEAKO ELKARTASUNA**
El Salvador eta Guatemalarekin

Argitaratzailea: MENDEBALDEA
BHiko Prentsa Tailerra

Posta Elektronikoa:
010329aa@hezkuntza.net

Koordinatzaileak: Juanjo Orbegozo, Paloma Bilbao eta Patxi Aizpurua.

Erredakzio Taldea: Oier Azkarraga, Oihane Aberasturi, Gillen Alcalde, Aitziber Argote, Sandra Beltran de Lubiano, Itsaso Díaz, Irati Errasti, Itsaso García, Jessica García Pérez, Jessica García Zoilo, Iñaki Ibaibarriaga, Unai Sánchez, Itsaso Martínez, Itziar Monje, Jorge Palomo, Amaia

Pascual, Vanessa Navo, Yakinde Carballo, Uxue Echevarria, Irene Elordi, Ainara Fernández de Gorostiza, Irune Fuente, Alejandro Ríos, Iker Salgado, Oihane Uriarte, Andoni Aguilera, Oihane Díez de Ulzurrun, Jorge Giménez, Paulo Goitiz, Ane Iturrioz, Mainer López, Mainer Mendizabal, Jon Saez, Ania Salceda, Arkaitz Tobera

Argazkiak: Edu Arrayet

Maketazioa eta inprimitegia: Gertu. Oñati.

Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, Lankide Kutxa, Vital Kutxa, Arriaga Liburudenda, Lakua Centro, La Cas de Mi Abuela, La Vitoriana okindegia, Gurpil fotokopiak, Erro autobusak, Eroski, Consumibles Tapia, Tapicerías Gasteiz, Zafiro Tours



Lakua
CENTRO



AGURRA

Jarri gure E-maila hozkailuaren atean

Ikasturte honetako lehenengo Mendeberrri-a baliatuz e-maila itxura duen ongietorria eman nahi dizuegu; izan ere, Guraso Elkarteari buruzko informazioa jaso nahi baduzue, zuen e-maila mendebaldeage@hotmail.com helbidera bidali besterik ez duzue.

Egunean egunekoa jasoko duzue

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON

Mendebaldeako Guraso Elkarte

Nuestro E-mail en la puerta del frigorífico

Aprovechando este primer MENDEBERRI os damos la bienvenida en forma de e-mail, pues si queréis recibir información inmediata sobre la Asociación de padres y madres de nuestro Instituto solo tenéis que remitirnos vuestro e-mail a

mendebaldeage@hotmail.com

Estaréis al día

¡FELIZ NAVIDAD Y PRÓSPERO AÑO NUEVO!

AMPA de Mendebaldea

Consumibles
Tapia

TEL: 947 33 03 08

FAX: 947 34 71 09

E-mail: consumibletapia@terra.es

Miranda de Ebro (BURGOS)

Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazio eta eginpide betearazteko (botere exekutiboko) erakunde gorena da.

Angel Iturriozek esan digunez: “Lehenengo Euskal Jaurlaritza 1936ko urriaren 7an sortu zen, Espainiako II. Errepublikako Gobernuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Autonomia Estatutua onartu ondoren, guda zibilaren garaian”.

Gudan Franco militar kolpista garaile izan zen eta Euskadiko Estatutua indargabetu zuen; ondorioz, Eusko Jaurlaritza klandestinitatera pasatu zen.

“Gaurko Eusko Jaurlaritza, Franco hil eta gero sortu zen”. Demokratiko era duen estatu antolakuntza ezarri zen Espainian eta 1979ko abenduaren 18an Lege Organiko baten bidez onartu zen gaur Gernikako Estatutua deitzen duguna eta lehenengo Eusko Jaurlaritza 1980ko apirilaren 24an osatu zen, Carlos Garaikoetxea nafarra izan zelarik lehendabiziko Lehendakaria.

Eusko Jaurlaritzak, edozein Herri Administrazio demokratikok bezala, gizartearen oinarriko beharrak betetzen ditu; hala nola, osasuna, hezkuntza, bizibaldintza egokiak (elikadura, arropa, etxebizitza), kultura, e.a. Betebeharra handi hori lortzeko aberastasuna sortzen ahalegindu beharko du garapen ekonomikoaren bidez.

Aurreko erantzunean hitz bitan esan ditugu Administrazioaren zereginak, baina, egia esan, hainbat arlo desberdinetan ekin behar dio bere jarduerari. Beraz, lana sailetan banatzen da. Sail bakoitza esparru berezi batean aritzen da. Egungo sailak, honako hauek dira:

- Lehendakaria
- Jaurlaritzaren Lehendakariordea
- Ogasun eta Herri Administrazioa
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza
- Herrizaingoa
- Industria, Merkataritza eta Turismoa
- Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa



- Osasuna
- Kultura
- Ingurumena eta Lurralde Antolamendua
- Garraio eta Herri Lana
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

“Hauteskundeak hurbil daudenean administrazioaren jarduera moteltzen da, noski, zer gobernu berri aterako den zain”, diosku Angelek. Gobernu berria osatu eta gero, jarduera bizitu egiten da, baina lanetan ez dago alde handirik gobernu ezkerrekoa ala eskuinekoa izan.

“Eusko Jaurlaritzaren esku eraikin pilo bat daude” Eusko Autonomia Erkidegoan. Dena den, bere egoitza nagusia Gasteizen dago, Lakua auzoan eta ikastetxe honen ondoan, hain zuzen ere. Beste bi hiriburuetan ere eraikin bana ditu egoitza gisa. Gasteizen eraikin txikiagoak ere badaude Lakuako eraikinez gainera, Samaniego kalean badago beste eraikin bat, Lurralde-ordezkaritzari dagokiona. Emakundek, Lehendakartzaren menpeko erakunde autonomoa dena, Manuel Iradier kalean du bere egoitza. Gaztelako Atea kalean, berriz, beste eraikin bat dago; bertan, Euskadiko Zerga Koordinazioarako Organoak ditu bere bulegoak, bai eta SOS-DEIAK-ek, Herizaingo Sailaren menpekoa denak ere. Osalan-ek, Osasun saileko erakundeak, Betoño poligonoan du egoitza.

Horietaz aparte, Eusko Jaurlaritzaren menpeko Zerbitzu batzuek badituzte bulegoak zenbait etxetako salairuetan.

Tabakoa Mendebaldean

Mendebaldea institutuan ez dute uzten erretzen eta ikasleak kexatzen ari dira ezin dutelako erre. Mendebaldeko ikasleek erre nahi dute atsenaldietan baina gobernuak ez du uzten institutuan erretzen. Ikasleak haserre daude, irakasleek erre egin ahal dutelako eta beraiek ez dutelako lekurik erretzeko.



Patioetan oso gaizki pasatsen dute denbora libre dutelako eta ezin direlako gustora egon. Beren zigarroa erreko balute askoz gustorago egongo lirateke.

Zenbat erretzen da Mendebalde institutuan?

Mendebalde institutuan asko erretzen da, gutxi gora behera % 50-k. Hitz egin dugu ikasle batzuekin eta esan digute gaizki pasatsen dutela. Ezin badute erre, oso urduri jartzen direla.

Azkenik, erretzea guztiz debekatuko dute gobernuak esan duelako. Urtarrilaren 1a ailegatzen denean ezin izango da erre inon. Ez kafetegietan, ez trenetan ...

Tabakoa uztea pentsatu al duzu?

Hainbat egun daramazu momentu honetarako prestatzen. Benetako ordua iritsi da. Gaurtik aurrera erretzeari utziko diozu. Zoriondu zeure burua horregatik! Zeure bizitza osoan hartu ahal izango duzun erabaki argienetarikoa izan daiteke! Zeure denbora jarraian ematen dizkiguzun azalpenen arabera antolatzea lagungarri gerta dakizuke:

-Erretzeari uzteko izan dituzun arrazoiak irakurriz hasi.

-Tabako guztia baztertu eta kendu zure bistatik horrekin loturik dauden irakurgai edo artikulu guztiak.

-Jakinarazi tabakoa uzten ari zarela. Ez izan ezkutuan porrot egiteari beldurragatik.

-Hurrengo egunetan abstinentsia sindromea izan dezakegu; antsietatea, kontzentratzeko arazoak, logabezia edo logura, buruko mina, erretzeko gogoia,...

Sintoma hauek aste batez edo bi astez jasan beharko dituzue, baina pixkanaka desargertzen joango zaizkizu. Erretzeko gogoak gehiago iraungo dizu, baina, egunak igaro ahala, gogo horren maiztasuna eta intentsitatea jaisten joango da.



Jessica García: “12 urte daramatzat flamenkoa dantzatzen”

Ale honetan ustekabeko berri bat dakargu, flamenko dantzaria bat dugula gure artean, alegia. 3.C-ko ikaslea dugu eta berarekin solasean aritu gara. Jarraian daukazue kontatu diguna.

Mendeberrri-Zenbat urte daramatzazu dantza egiten?

Jessica-11 urte eta bukatzeaz dagoenarekin 12.

M-Zergatik hasi zinen dantza egiten?

J-Txikitatik flamenkoa dantzatu nahi izan nuen. Orduan, nire lehengusina akademia batera sartu zen eta ni, urtebete pasa ondoren, sartu nintzen berarekin.

M-Non hartzen dituzu flamenko eskolak?

J-“Maria Elena” akademian, Alde Zaharrean dagoena.

M-Zenbat ordu ematen dituzu astero?

J-Batzutan 2 edo 3, baina ni hara joaten naiz eta nahi dudan denbora egoten naiz dantzatzen.

M-Jende aurreko agerpenik egiten al duzue?

J-Ikasturte bukaeran lagunei eta familiari egiten diegu jende aurreko agerpena, Hegoalde gizarte etxean.

M-Flamenkoan lehiaketarik egiten al duzue?

J-Ez, ez dugu egiten.

M-Zenbat zarete dantza taldean?

J-Ba, Espainiol taldean 6 gaude eta flamenko taldean 20 gutxi gora behera.



DI-DA batean

Janari bat? Pizza

Bizitzeko leku bat? Torre del Mar (Málaga)

Pelikula bat? Dirty dancing

Eguna ala gaua? Gaua

Uda ala negua? Uda

Mendia ala hondartza? Hondartza

Mutil baten izena? Alex

Neska baten izena? Maria

Aktoresa, aktore bat? Michel Brown

Abeslari bat? Sergio Contreras

Flamenko dantzari bat? Farruquito

M-Dantza taldeko inorekin daramazu denbora luze dantzatzen?

J-Bai, lehen nire lehengusina nirekin etortzen zen, baina orain dela 2 urte utzi zuen eta lagun batekin, Maite deitutakoa, 7 urte daramatzat.



M-Zenbat jantzi flamenkar dituzu?

J-Ba, 8 gona flamenko, gona luze bat eta 2 soineko. Bat nire amak egindakoa da eta, bestea, nire jaunartzean oparitutakoa.

M-Jende aurreko agerpen batean inoiz erori al zara?

J-Ni ez naiz inoiz erori. Baina orain dela 5 ala 6 urte neska bat dantzatzen ari zela, zapata airean, hegan, joan zitzaion.

M-Zer izan nahi duzu heldua zarenean?

J-Dantzaria eta ile apaintzailea izan nahi dut.

M-Andaluziako hiri bateko feriaren batean egon zara?

J-Bai. Malagako ferian egon nintzen orain dela bi urte.

M-Andaluzian seniderik al duzu?

J-Bai. Nire lehengusinak, izeba eta osabak. Gainera, nire ama ere hangoa da.

M-Beste dantzaren bat egiten al duzu?

J-Orain ez, baina pasa den urtean dantza modernoa eta duela 2 urte kontenporaneoak egiten nuen.

Beno, hau izan da dena, eskerririk asko gurekin egoteagatik jendeak zu hobeto ezagutzeko.

Andoni Aguilera: “Txikia nintzenean gol asko sartzen nituen, baina orain ez”

Andoni Aguilera 14 urteko mutil bat da. Mendebaldea institutoan ikasten ari da eta Aurrerako jokalaria da.

Mendeberrri: Zein taldetan jokatzen duzu?

A: Olarizu B-n, kadeteetan..

M: Zenbat urte daramazu Aurreran?

A: Urte honekin lau.

M: Gustora sentitzen al zara taldean?

A: Bai, oso ondo.

M: Beste talde batera joango zinateke?

A: Ez dakit, baina beste talde hobe batera joatea proposatuko balidate, bai.

M: Zenbat jokalaria zaudete taldean?

A: 18.

M: Zein mailatan jokatzen duzue?

A: Kadeteko bigarren mailan.

M: Nola ikusten duzu aurtengo liga?

A: Ondo. Lehenengo postuetan egongo garela pentsatzen dut.

M: Normalean, zenbat minutu jokatzen duzu?

A: Normalean 50 minutu.

M: Ze zerbaki daramazu?

A: 8-a

M: Zein postutan jokatzen duzu?

A: Erdian, ezkerretik.

M: Non entrenatzen duzue?

A: Olaranbeko instalazioetan.

M: Zenbat egunetan entrenatzen duzue astean? Zenbat denbora?

A: Hirutan. Egun bakoitzean ordu eta erdi.

M: Lesio garrantzitsuren bat eduki al duzu? Zein?

A: Ez, orain arte zorte handia izan dut.



M: Zure bizitzan zenbat gol sartu dituzu?

A: Txikia nintzenean gol asko sartzen nituen, baina orain ez, zailagoa da.

M: Zergatik aukeratu zenuen postu hori?

A: Gustatzen zaidalako eta ezkertia naizelako.

M: Etorkizunean, futbolaria izatea gustatuko litzazuke?

A: Bai, asko gustatuko litzaidake.

M: Zein taldetan?

A: Alaves taldean hasi eta Bartzelonan bukatu.



Paco Ibañez: “Musika nire a



Gu kontserbatoriora joan gara Pacori, Kontserbatorioko zuzendariari, elkarrizketa egitera. Gure asmoa musikari bikain hau hurbiletik azagutztea izan da.

Mendeberri. Noiztik zabiltza musikaren munduan?

P.Ibáñez.: Jaio nintzenetik, nire aitona nire herriko bandaren zuzendaria zen, nire aitak jarraitu zuen bandarekin eta musika beti izan dut nire bizitzan.

M. Txikitatik bazenekien musika izango zela zure lanbidea?

P.I.: Txikitatik konturatu nintzen musika oso gogoko nuela. Pedagogia ere ikasi nuen, baina gustukoena nuena musika zen eta azkenean bide horri heltzea erabaki nuen eta horregatik naiz musikaria. Musika betidanik gustatu izan zait.

M. Ze instrumentu jotzen dituzu?

P.I.: Txikitan afizionatu bezala gitarra jotzen nuen rock talde batean eta akordeoia ere bai, baina orain pianoa jotzen dut.

M. Entzunaldiak egiten al dituzu?

P.I.: Ez ditut egiten, bakarrik konpositorea eta irakaslea naiz. Urriaren 29an nire lan berri bat estreinatu zen.

M. Obra famaturik ba al duzu?

P.I.: Ez dakit zeri deitzen diozuen obra famatua, baina asko publikatu den obra bat “Ave Maria” izan da, abesbatz askotan abesten dute. “Juegos de otoño” ere oso ezaguna da, horiek biak dira aipagarrienak.

M. Non ikasi zenuen musika?

P.I.: Musika nire aitarekin ikasi nuen; gero, seminarioan, bertako irakasle zen Aramaioko Sabin Salaberrirekin aritu nintzen, azterketarik egin gabe, baina pixka bat denetik ikasten. Seminariotik ateratzean, niri musikarekin segitzea interesatzen zitzaidan; kurtso batzuk egin nituen eta gero Bartzelonara joan nintzen.

M. Nerabezaroan ze musika gustatzen zitzazun? Oraingo berbera?

P.I.: Ba, momentu hartan entzuten zena eta beti gustoko izan dudana musika klasikoa, baina nire etxean musika gutxi entzuten zen baliabiderik ez zegoelako. Nik bandako musika soilik entzuten nuen.

“Musikarekin ikasi nuen”

M. Non hasi zinen musikarekin lanean?

P.I.: Samaniego eskolan bi urtetan ibili nintzen. Ondoren, 1985ean, eraikuntza berria ireki zutenean, Kontserbatoriora etorri nintzen.

M. Nola iritsi zinen kontserbatorioko zuzendari izatera?

P.I.: Zoritxar bat izan zen. Dena lehen zegoen zuzendariak kargua utzi zuenean hasi zen. Irakasleei eta ikasleei galdeketa bat egin zitzaion eta ni hautatu ninduten. Disgustu handia izan nuen, hori ez zelako nire asmoa eta bederatzi urte igaro ditut hemen jada.

M. Zer iruditzen zitzaizun zu baino lehen zegoen zuzendaria?

P.I. Lehengoa, Albert Nieto, pianista bikaina berau, gauza asko aldatzen saiatu zen.

M. Ze iritzi daukazu Kontserbatorioko irakasleei buruz?

P.I. Irakasleak zoragarriak dira. 70 irakasle gaude eta batzuk besteak baino kondizio okerragoan daude; baina kontserbatorio honetan fama ikaragarria omen dugu, ez Euskal Herrian bakarrik, nazio mailan ere bai. Nik uste dut kalitate oneko kontserbatorioa dela hau, eta hemendik ateratzen den jendea, oro har, oso ona dela.

M. Irakasle ona zarela uste al duzu?

P.I.: (je, je...) Saiatzen naiz, baina inoiz ez zara erabat gustura egoten egiten duzunarekin, batzuetan uzten dituzu gauzak egin gabe edo klase bat gehiago prestatu behar zenuen sentsazioa gelditzen zaizu. Gauzak ondo egitea da nire helburua, baina nik uste dut hobeia izan nintzekeela. Hala ere, hori ikasleek esan behar dute.

M. Erreza da musikatik bizitzea?

P.I.: Nire ustez, edozein lanek du bere nekea, lan guztietarako ahalegindu behar duzu, baina ziur nago zuk horretatik bizi nahi baduzu eta gogoia jartzen baduzu, nahi duzuna lor dezakezu. Esan beharrik ez dago zorteak eta abarrek ere jokatzeko dutela.

M. Musikariren bat miresten al duzu?

P.I.: Bai, asko. Garai guztietakoak: Monteverdi, Bach, Beethoven, Mozart, Schumann, Schubert... Bizitzaren momentu desberdinetan musika bat gustatzen zaizu. Bat esatekotan, Bach hautatuko nuke.

M. Musikaz gain beste afizioen bat ba al duzu?

P.I. Egia esan, musikak denbora gutxi uzten dit. Mendia gustatzen zait eta irakurtzea eta kirola egitea ere bai.

M. Esperientzia txarren bat izan al duzu musikaren munduan?

P.I. Bai, mundu guztiak izan du esperientzia txarren bat. Kontuan izan, Kontserbatorioan 70 irakasle, 400 ikasle eta 800 guraso gara. Hori horrela izanik, normala da arazoren bat egotea eta momentu oso gogor batzuk izan dira. Adibidez, ez da erraza irakasle batekin, ikasle batekin edo gurasoekin desadostasun handiak badaude, gauzak ahalik eta errazen bideratzea. Dena den, kontserbatorioko jendea oso ona da eta ez dago diziplina arazorik, beste zenbait tokitan izaten omen den modura, eskolan bezala. Baina, beno, inoiz zenbait kasu desatsegin bizi izan dut eta ez nuke errepikatzerik nahi, oso momentu gogorak direlako.



Gurasoen Txokoa

mendebaldeage@hotmail.com

Con el inicio del curso Vuelve a ponerse en marcha la maquinaria de la AMPA. El pasado 13 de octubre en el salón de actos del Instituto, se celebró la Asamblea en la que los padres y madres que componemos la Junta de la Asociación os expusimos el plan de de acción para éste año. La forma de hacerlo será seguir el camino iniciado el pasado curso, esto es, en trabajo de comisiones a las que intentaremos canalizar las diferentes preocupaciones expresadas en la asamblea y en la pequeña encuesta que os enviamos. Serán las siguientes:



ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES.- Es la comisión que mas actividad despliega, pues es complejo organizar los deferentes grupos de actividades deportivas. Lo coordina Ana Rabanal 610 39 04 75.

VIAJES DE ALUMNOS.- Varios padres asumen la responsabilidad de gestionar conjuntamente con los alumnos y alumnas la organización de las dos propuestas presentadas. Para cualquier información contactar con Mari Carmen 94517 02 76 o Idoia 945 27 13 02.

LIBURTXO.- Anabel 656 71 93 86 se encarga de este programa para el reciclaje de libros tanto de texto como de lectura.

EUSKERA.- Mari Mar coordina un año mas este grupo 945 19 11 84.

CONVIVENCIA.- A lo largo del 2º trimestre intentaremos continuar el trabajo iniciado el año pasado con el abordaje del buliying. A través de la encuesta hemos recogido la preocupación de muchos de vosotros y vosotras por los consumos de drogas. Trataremos de responder a vuestra demanda. Cualquier idea a Joseba 945 22 51 14.

MENDE MENDI.- Hasta la fecha hemos realizado dos salidas montaÑeras que han resultado un éxito. La primera fue a San Tirso en Sierra Cantabria desde Bernedo y la segunda a Kostalera desde Santa Cruz de Campezo, y se han adaptado a todos los niveles. Así que en la próxima no debes de faltar. Nuestro guía es Joserra 609 78 79 57

POR EMAIL .- Somos conscientes de la dificultad para comunicar con todas las familias. Si queréis recibir las informacion de Mendebaldea Guraso Elkartea de forma inmediata, mándanos un email a nuestra dirección: mendebaldeage@hotmail.com, adjuntando a demás de vuestro email, vuestro nombre y el de vuestro hijo o hija.



Mendebaldea Eskubaloia

Mendebaldea jaio zenetik eskubaloia gure artean izan dugu. Denetarik ikusi ondoren eta laburpen modura, guretzat, eskubaloia aisia betetzeko modu eder bat izan dela esan dezakegu. Ez da inoiz helburu bat izan, bai-zik eta ondo pasatzeko, leku guztietara joateko eta lagunak egiteko aitzakia bat. Hona hemen adibide batzuk.

10. urteurrena



04-06-19 hondartzako eskubaloia



04-12-29 Egea de los Caballeros, Iker Romerorekin



04-06-11 Talde-afaria



04-05-16 Corrales de Buelnan

IKASTURTE HONETAKO JOKALARI BATZUK



1. mailakoak



2. mailakoak



Beste mailakoak



04-12-31 Gabonetako txakelpeta Urdangarinekin



05-02-05 Inauterietako txakelpetan



05-05-28 Olarizuko txakelpetan

Etorkinak Eus



Hego Euskal-Herriko gizartera milaka lagun heldu dira azken urteotan.

• Euskadiko Autonomia Erkidegoko datuak

- SOS Arrazakeriaren arabera, 2004ko akainean 315.000 etorkin zeuden EAEn lan egiteko eta bizitzeko baimenaz.
- EAEn, 10.041 ikasle etorkin egon ziren 2003 – 2004 ikasturtean , ikasleen %3 gutxi gora behera .
- Eskolatuen %69 hego amerikarrak ziren(kolombia, Ekuador eta Argentinakoak batik bat), %15 Afrikakoak

(Marokokoak), %10 Europako herrialdeetakoak (Portugal eta Errumaniakoak) eta %6 Asia eta Ozeania .

• Beste zanbait datu

- Espainian 2.672.596 etorkin zeuden 2003ko urtarri-lean. Horietatik 1.657.011 baimenarekin zeuden.
- Espainako biztanleen %6,3 etorkinak dira; Frantzia %7 eta Alemanian %8.
- 2003-2004 ikasturtean , eskolatuta zeuden etorkinen seme-alabak %10,2 ziren, Balear uharteetan %10,1 eta Katalunian, Balentzian eta Murtzian %7tik gora. Espainako Estatuan 500.000 haur ziren, eskolatutakoen %5,9.

skakal Herrian

Eta datuekin zer?

Ez dago zientziarik migraziokoen presioa neurtzen duenik; ez dago horrelako balorazioa egiteko erreferentziazko zenbakirik. Kopuruarekin iritzia ematen dutenak askotan beldur direnak izan ohi dira, edo beldurra sortu nahi eta zenbait neurri politiko justifikatu nahi dituztenak: adibidez, etorkinen eskubideak gutxitzen dituzten legeak. Baina honetaz gain, zein irizpide lor daitezke jakiteko eta zehazteko asko, gutxi, egokiak... diren?

Kopuruak esanguratsuak direla eta, noski, kontuan hartu behar direla, zeozer aldatu da, eta badakigu hemendik aurrera hori horrela izango dela: ez dago atzera bueltaterik eta etorkin gehiago etorriko dira datozen urteetan (nahiz eta ezin jakin zenbat izango diren, ez nolakoak izango diren ezta nongoak ere). Miguel Laporrak, UPNAren Alter ikerketa taldekoak, Nafarrako kasuaz, esaten du imigrazioaren hasieran gaudela; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailburuak, Angeles Iztuetak, ikasturte

bakoitzean haur etorkinak %40 igoko direla aurreikusi du, eta Loiook urtean 72000 izan litezkeela (10041 haur diaz 2004-2005 ikasturtean). Bestalde, INE-k uste du 2010. urtean 4tik 6,5 miloi bitartean egongo direla Espainian; Funca-k, berriz, adierazi du 2014. urtean Espainian 11 milioi etorkin egongo direla, biztanleen laurdena.

Datu hauek zera adierazten dute: errealitatea hau ezin daitekeela utzi alde batera; gai honen inguruan hausnartu eta erabakiak hartu behar ditugu. Izan ere, gai hau kontuan hartu behar da kanpotik datozenentzat. Baina ez da hori bakarrik: badago autoktonoen interesa ere, lehendik hemen gaudena, gure patua etorkinei erabat lotuta baitago. Etorri berriek gizarte honetan egongo dutena edo egongo ez dutena hemen gaudenon bizimoduaren eragingo du zuzen zuzenean.

Hori dela eta, hizkuntzaren eta kulturaren arloaren ondorioak izango ditu, hain zuzen ere. Etorkinek hizkuntza arloan hartuko dituzten eraba-



kiak, bai beraientzat eta baita beren seme-alabentzat ere.

Integrazioa?

Talde bat edo pertsona batek gizarte bat utzi eta beste gizarte batera heltzen denean, aldaketak gertatzen dira bi aldeetan. Alde batetik, pertsona horrek edo talde horrek, jarreretan, baloreetan, identitatean... aldaketak izango ditu. Beste aldetik, etorkina hartzen duen gizarteak bere ohiturak errespetatu beharko ditu.



KICKSLED

Kick sled comes from Northern Scandinavia and it was a traditional mean of transportation, but its importance has decreased as the use of motor vehicles has increased.



It's a sport for everybody. Sleds used for kicksleding are lighter than other sleds and they have elongated runners. Iron coating has been applied underneath and a vertical handlebar has been attached for more stability.

Nowadays many fishermen use kick sleds to get to the best fishing places. Kicksleding is on fashion again. Races both on roads and on ice are organised

**Oihane A., Josu B. eta Riwana L.
DBH 1.E**



ICH

Ich heiße Maider, Maider Mezcua. Ich bin 13 Jahre alt. Ich wohne in Gasteiz. Ich habe am 19. März Geburtstag.

Ich habe einen Bruder. Er heißt Asier. Er ist 7 Jahre alt. Er hat graune Augen und braune Haare. Ich spiele Tennis am Dienstag und Donnerstag. Ich spiele auch Flöte und ich höre gern Musik. Ich kaufe sehr gern ein.

Maider Mezcua

Ostalaritzan Ordutegia Betetzeko Kanpaina

Campaña por el Cumplimiento de Horarios en Hostelería



Egizu garaian

Todo tiene su tiempo



aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA

HERRIARANGO SAIALA
Herriaren Gaitasunak
Herriaren Gaitasunak



un país en marcha

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Departamento de Interior
Dirección de Seguridad y Emergencias



Hizi kalitatearen alde
Por una calidad de vida

Ines Elcorobarrutia: “Zerbai



Frantsesa eta euskara irakatsi izan ditu Mendebaldean. Ekainean, ongi merezitako jubilazioa zela eta, lankide eta ikasleen omenaldi xumea jaso zuen. Ikasturte honen hasieran, eguna menpe zuela baliatuz, berarekin hitz egin dugu bere ibilbide profesional eta pertsonalaren berri emateko.

Mendeberrri: Noiz eta non jaio zinen?

IE: Arrasaten jaio nintzen, duela 60 urte.

M: Orain non bizi zara?

IE: Legution, herri txiki eta lasai batean.

M: Nola izan zen zure haurtzaroa?

IE: Zuena baino zailagoa, edo agian ez, beste arazo batzuk dituzue eta. Guk ez geneukan hainbeste gauza, hainbeste makinatxo edo tresna elektronikoa, ezta telebistarik ere. Hala eta guztiz asko jolasten genuen, kalean. Orokorrean

esanda, haurtzaroa alaia izan zen, baina, aldi berean, une grisak ere bazituen, gabezia asko. Pentsa ezazue sei anai-arreba ginela eta ni nagusiena. Askotan anaia edo arreba txikiren bat zaindu behar jolasera joan ordez.

M: Noiz hasi zinen lanean?

IE: 18 urterekin, Batxilergoa bukatu ondoren, bulego batean. Etxean lagundu beharra zegoen. Baina beti eduki izan dut ikasteko gogoia. Eta ezkondu eta gero aukera eduki nuen. 33 urterekin hasi nintzen karrera egiten.

M: Zergaitik hasi zinen?

IE: Konkretuki bulego batean lan egiten ari nintzela izan zen. Itxi egin zuten

eta ia bi urteko langabezia ordaindua neukala jakitean ikastea bururatu zitzaidan.

M: Zergaitik aukeratu zenuen frantsesa?

IE: Nik maisutza ikasketak, Euskal Filologia espezialitatean, egin nituen eta bukatu ondoren lanean hasi nintzen segituan. Hurrengo urtean oposaketak atera nituen. Pixka bat lasaitu nintzenean, konturatu nintzen ikasten jarraitzeko gogoia neukala eta frantsesa nahiko ondo hitz egiten nuen, bigarren espezialitatea egitea erabaki nuen. Inguruko guztiek esaten zidaten ez zuela ezertarako balio, momentu horretan ingelesa zela egin behar zena. Inoiz

t nahi baduzu, lor dezakezu”

ez dakigu egiten ditugun gauzak norainoko ondorioak izango dituzten. Nik frantseseko espezialitate horri esker Mendebaldean lan egiteko aukera izan dut.

M:Fakultatean bizitza gogorra eduki al zenuen?

IE: Bai, halaxe izan zen. Nik uste nuen bi urte libre izango nituela ikasteko, baina nahiko laster berriro hasi nintzen lanean. Frantsesa eta euskara nekizkielako Eroski hipermerkatuan hartu ninduten. Nahiko gogorra izan zen bai, batez ere azkeneko bi urteak, praktikak egin behar zirelako. Ordutegi murriztua eskatu nuen lanean eta goizean jaiki eta bostak arte eskolara, praktikak egitera; gero hamarrak arte lanera. Aste buruetan ikasi egin behar eta lanak prestatu. Hau guztia seme batekin. Eskerrak nire senarrak asko laguntzen zidala. Dena den, epe barruan eta ekainean bukatu nituen ikasketak eta irailean eskolan lanean nengoen. Ah!, eta praktikak Begoña Diaz de la Presarekin egin nituen, eta eskola bereko beste lagun batekin. Arantza Landa ere han zegoen. Ordutik gara oso lagunak.

M:Zure senarra fakultatean ezagutu al zenuen?

IE: Ez, lehendik ezagutzen nuen. Biok Arrasatekoak ginen eta nahiz eta ikastetxe desberdinetara joan, azterketak egitera elkarrekin etortzen ginen Gasteizera. Anekdotak bat kontatuko dizuet. Niri, 14 urterekin, pila bat gustatzen zitzaidan. Baina ez zekien inork, oso lotsatia nintzen. Eta gero guztiz ahaztu egin nuen mutil hura. Baina, 19 urte nituela euskararen aldeko ekintza batean topatu nuen berriro, eta bera hasi zitzaidan fakultateko istorioak konta-




tzen, eta egoera politikoari buruz, eta... Oso mutil interesgarria iruditu zitzaidan. Han hasi zen guztia.

M:Seme alabarik ba al duzu?

IE: Seme bat dut, nagusia. Eta askotan egoten da nirekin.

M:Zer pentsatzen du familiak zure lanari buruz?

IE: Nire familiakoek esaten dute irakasleok oso koipetsuak garela, beti ikasleei buruz hitz egiten dugula. Baina bada-kite lan asko egiten dela eta buruhaustea izaten ditugula, eta errespetua ere badiote lan honi.



Mendebaldeko irakasle, guraso eta ikasleok, iragarki hau eramanda, %5eko deskontua izango duzu zure oporretan.

Horretarako jo **Gasteiz Hiribidea 75 behe-2.**
Telefonoa: 945-213940.

¡Atención profesores-as y familias de Mendebaldea. Zafiro Tours ofrece un descuento de un 5% en paquetes vacacionales en su oficina de la **Avenida Gasteiz 75 bajo 2.**
Teléfono: 945-213940,
presentando este anuncio.



M:zure semeak ere ba al daki frantsesez?

IE: Bai, badaki. Nire semea Belgikan jaio zen eta han egon ginen bizitzen zortzi urte, (hau beste istorio bat da). Gero, COU bukatzeko eta frantsesa berreskuratzeko beste urte bete egon zen Belgikan.

M: Zer moduz frantsesekin egindako trukaketak?

IE: Oso interesgarriak izan dira. Beti pentsatu izan dut frantsesa irakasteko aukera izatera, trukaketak egiten saiatuko nintzela, eta lortu nuen. Ni oso pozik ibili naiz eta gainera lagun onak egin ditut. Baina, galdetu ikasleei, beraiei ere gustatzen zaie eta asko ikasten dute, bai frantsesari buruz, bai frantsesei buruz.

M: Zergatik aukeratu zenuen jubilatzea?

IE: Alde batetik, beharrezkoa den adin minimoa daukat. Beste alde batetik, azkeneko urte hauek oso gogorrak izan dira pertsonalki., senarraren gaixotasuna eta gero bere galera. Gainera, esan behar da, gaur egun irakaskuntzan ilusioaz lan egiteko indar handiak behar direla, batez ere bigarren hezkuntzan. Nerabeekin lan egitea beti izan da konplexua, baina azken urteotan egoera areagotu egin da eta nik irakaskuntza gogoratu nahi dut esperientzi oso emankorra eta atsegina bezala. Hori guztiagatik deskantsatzea erabaki dut. Nire buruari esan diot merezi dudala!

Mendebaldeko ikasleen falta nabaritzen al duzu?

IE: (Barreak) Irakaskuntza faltaren hutsunea sumatzen dut; eskolako saltsaren gabezia ere antzematen dut.

Momentu batzuetan pena sentitzen dut. Gazteekin ego-teak beste ikuspuntu bat hurbiltzen du zure begietara.

M: Pena eman al dizu Mendebaldea uzteak?

IE: Bai, giro ona zegoelako irakasleen artean. Espero dut eurekin elkartzeari afariak daudenean,...

M: Orain zer egiten duzu?

IE: Hasi naiz gauza batzuk egiten, koadroak margotzen, ingelesa ikasten, gauza ezberdinak irakurtzen, loreak zaintzen, etab. Paseoak ere gustura egiten ditut.

M: Bilobarik ba al duzu?

IE: Ez, ez dut.

M: Bukatzeko, zure bizitzako bitxikeriaren bat bat kontatu mesedez!!

IE: Txikia nintzenean, nire amak erosketak egitera bidaltzen ninduen eta denda horretan zegoen neska bat eta euskara zekiena eta beti berari eskatzen nion; baina egun batean ez zegoen eta ni hasi nintzen gauzak eskatzen. Gauza bat ez nekien nola esan erderaz eta nik "dos carbonatos" eskatu nuen. Dendariak ez zekien zer esan nahi nuen. Azkenean etorri zen euskara zekien emakume bat eta galdetu zidan: Zer eskatu nahi duzu Ines? Eta nik esan nion "Amak esan dit bikarbonatoa erosteko". Eta etxera iritsi nintzenean, latsa izugarria pasa ondoren, nire amari esan nion ez nuela berriro erosketarik egingo.

Mendebaldea kantari

Mendebakdeako abesbatza berria

- 1.- Zergatik apuntatu zinen?
- 2.- Lehiaketaren batean parte hartu al duzu?
- 3.- Gustuko al duzu abestea?
- 4.- Bidaiak egiten dituzue?
- 5.- Kontzertuak egiten dituzu?
- 6.- Zer esango zenioke jendeari animatzeko?



NAHIKARI - 1.MAILA -

1. Abestea gustatzen zaidalako.
2. Bai.
3. Bai, asko.
4. Bai.
5. Gehiegi.
6. Oso ondo pasatzen dugula, lagunak egiten ditugula eta klasea galtzen dugula.

LARA - 1.MAILA

1. Abestea gustatzen zaidalako.
2. Bai, Torrebiejan.
3. Izugarri.
4. Bai, eta trukaketak ere egiten ditugu Bartzelonan, Frantzian...
5. Batzuetan.
6. Oso ondo pasatzen dugula eta lagun asko egiten ditugula.

MADDALEN - 3.MAILA -

1. Txikitatik musika gustatzen zitzaidalako eta gurasoek apuntatu nindutelako.
2. Bai: Tolosan, Zumarragan "Antiguan" eta Torrebiejan.
3. Bai, elkartrukeetan jende berria ezagutzen dugu eta ahotsen artean ere bai.
4. Bai, sarritan bidaiatzen dugu.
5. Asko, eta bukatu ondoren afaltzera joaten gara abesbatza guztia eta berandurarte gertzen gara.
6. Musika gustatzen baldin bazaio, lagunak egin nahi baldin baditu, klasea galdu nahi badu, elkartukreak egin nahi baldin baditu eta oso ondo pasatu nahi baldin badu, apunta dadila.

MIRIAM - 1.MAILA -

1. Abestea gustatzen zaidalako.
2. Bai, Torrebiejan.
3. Bai, pilo bat.
4. Bai, batzuk: Torrebiejan.
5. Gehiegi.
6. Oso ondo pasatzen duzu eta bidaiak egiten dituzu, batzuk luzeak.

MIRENA - 1.MAILA -

1. Nik nahi nuelako.
2. Bai, Torrebiejan.
3. Bai.
4. Bai, asko.
5. Bai, askotan.
6. Bidaia asko egiten ditugula eta klasetik lehenago ateratzen garelako kontzertuak egiteko.

MIRIAM - 1.MAILA -

1. Abestea gustatzen zaidalako eta Abendañon apuntatu nintzelako.
2. Ez.
3. Bai.
4. Bai.
5. Batzuk bai, Dendaraban eta herrietan...
6. Oso ondo pasatzen da, bidaiak egiten dira eta asko ikasten da.

Mendebaldeako gazteak

Gaur gazteei buruzko inkesta baten erantzunak emango dizkizuegu. Alde Zaharrean egon gara erantzun hauek bilatzeko. Eta ez da erraza izan, jendeak ez zuelako bere erantzuna eman nahi.

1: Hasteko, zer pentsatzen duzu 18 urtetik beherako gazteei buruz?

2: Zein da zure iritzia gazteek 13 urterekin Alde Zaharrea joateari buruz?

3: Larunbat gauean, Alde Zaharrean ibiltzen zarenean, nola ikusten dituzu gazteak?

4: Asko edaten eta erretzen dutela uste al duzu?

5: Bukatzeko, uste duzu gaur egun gazteei jai egunetan berandurarte kalean ibiltzen uzten dietela?

BEGOÑA-51 URTE-

- 1- Gaur egun gazteak oso goiz hasten dira kalean ibiltzen.
- 2- Ondo iruditzen zait, giro polita dagoelako. Baina batzuetan bakoitzak norberaren mugak kontrolatu behar ditu.
- 3- Ba, egia esan, ez naiz asko joaten, baina joaten naizenean giroa oso polita da: lagunak elkarrekin egotea, ondo pasatzea...gustatzen ez zaidana da batzuetan gazteak kalean botata ikustea, oso era eskasean.
- 4- Bai, asko edaten eta erretzen dutela uste dut eta oso gaizki iruditzen zait, oso gazteak direlako.
- 5- Bai.

ANA-32 URTE-

- 1- Nire ustez gazte hauek ez dituzte gauzak bi aldiz pentsatzen eta gero ondorio txarrak ekartzen dizkiete,
- 2- Bueno, ba, zer esango dizuet! Ni ere gaztea izan nintzen, Alde Zaharrea joatea gustatzen zitzaidan, baina egia da gazte asko daudela eta oraindik oso gazte direnean igotzen direla.
- 3- Ni Alde Zaharrea joaten naizenean, gazte batzuk oso gaizki ikusten ditut eta oso gaizki iruditzen zait, gero helduagoak direnean gaizki bukatuko dutelako.
- 4- Bai. Eta hori da gaizki iruditzen zaidana. Baina azkenean konturatuko dira oso gaizki egin dutela.
- 5- Beno, horretan nik uste dut bi alde daudela. Ni gaztea izan nintzen eta berandu arte geratzea gustatzen zitzaidan, baina gero umeak izan nituen eta beste begi batzuekin ikusi nuen dena.

Break-dance

Dantzen munduan "Break-Dance" izeneko dantza akrobatikoa da eta honen barruan bost estilo mota desberdin daude: airezkoa, lurrekoa, popping-a, top rocking-a eta hak rocking-a. Gure ustez, "Break-Dance" gero eta jende gehiagok praktikatzen du eta gero eta jende gehiagori gustatzen zaio. Dantza interesgarria dela pentsatzen dugu, baina ezin duela jende guztiak dantzatu, zeren dantza hau dantzatzeko gorputz indartsua eta malgua izan behar da, oso gogorra baita.

Gure iritziz popping-a interesgarriena da. Estilo honen barruan beste lau desberdin daude: robota, elektribuki-a, tridimentsionala eta looping-a. Robotan golpeko mugimenduak egiten dira, elektribukian gorputzean kalanbre bat izango bazenu bezala mugitu behar duzu; tridimentsionalean gorputza olatuen antzera mugitu behar duzu eta looping-ean soka batekin mugituko bazina bezala egin behar duzu, bilduz eta askatuz, baina soka barik.

Lehen kalean ikasten zen, baina orain klaseetan ikas daiteke. Gure ustez etorkizunean nahiko garrantzitsua izango da. Famatua egingo dela ere pentsatzen dugu bere itzulipurdiengatik eta dantza ezberdina izateagatik. Izan ere, dantza mota honetan talde bat beste baten kontra aritzen da.



Gazteek teknologia berriak nahiago dituzte liburuak baino

Guk gai hau aukeratu dugu konturatu garelako teknologia berriak asmatu zirenetik, gero eta gazte gehiago ari direla engantxatzen ordenagailuekin eta sakelako telefonoekin.

Teknologia berriak asmatu zirenetik, konprobatu da gazteek telebista eta ordenagailua askoz gehiago erabiltzen dutela eta liburuak albo batera uzten dituztela.

Gazteek egunean zehar hiru ordu pasatzen dituzte telebistaren aurrean. Gure ustez, ordu pila dira. Ondo dago denbora pixka batean egotea jolasten, baina hainbeste ordu kaltegarri izan daiteke ikasketetarako eta ikusmenerako.

Pertsona batzuk ordenagailuen aurrean denbora luzez egoten dira eta azkenean beraien ikasketak eta gauza guztiak albo batera uzten dituzte eta ordenagailuarekin kateatzen dira. Sakelakoarekin gauza bera gertatzen da. Gazte batzuek egun osoa ematen dute mezuak bidaltzen, gai dira segundu batean mezu labur bat bidaltzeko.

Azkenik, gure ustez teknologia berriei denbora askoz gutxiago eman behar zaie. Hau gerta ez dsadin gazteen gurasoek arreta gehigo eman beharko zieten.



"Gazteak teknologia berriei denbora askoz gutxiago eman behar zaie. Hau gerta ez dsadin gazteen gurasoek arreta gehigo eman beharko zieten."

E s k o l a a g e n d a

IAZ ENERGIA!

Iaz honako jarduera hauek burutu genituen:

- ✓ Irudi eta idazlan lehiaketa
- ✓ Garapen jasangarriaren bideoa
- ✓ Argiztapenaren azterketa
- ✓ Berokuntzaren azterketa
- ✓ Gas eta argi indarraren kontsumoa
- ✓ Plaka fotoboltaikoen ekoizpena
- ✓ Gure kontsumo ohiturak
- ✓ Gasteizko energia kontsumoa
- ✓ EAE-ko energia kontsumoa
- ✓ Industria eta Zerbitzuen sektoretako kontsumoa
- ✓ Eskoletako UDAL-FOROAN parte hartu genuen.





1. Mailakoek argiztapena



2. Mailakoek berokuntza



3. Mailakoek argi-indarra, gas kontsumoa eta plaka fotoboltaikoak



GURE ENERGIA KONTSUMOA
GERO ETA HANDIAGO DA



Mendebaldeko kideak Eskolako Udal-foroan



agenda 21



AURTEN MUGIKORTASUNA!

Aurten honelako galderak erantzuten saiatuko gara:

- ✓ Nola mugitzen gara leku batetik bestera joateko?
- ✓ Gasteiz bizigarriago bihur genezake, eta zarata eta CO2 kutsadura gutxitu gure ohiturak aldatuz?
- ✓ Zergatik ez dugu bizikleta erabiltzen gure joan-etorrietarako?
- ✓ Mesederik ekarriko liguke bizikletaz ibiltzeak?
- ✓ Zer abantaila ditu pertsonentzat Gasteizen egiten dituzten joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzeak?
- ✓ Zer neurri eskatuko dizkiogu Udalari gure inguruan ikusten ditugun praktika ez-jasangarriak aldarazteko?
- ✓ Zer ondorio ditu pertsonengan trafikoa gehitzeak?
- ✓ Zer egin dezakegu garraio publikoaren erabilpena sustatzeko?
- ✓ Zer gertatuko litzateke planetako petrolio erreserba guztiak agortuko balira?



Emaztegaiek utzi nau, katalizadorea daukan baten truke



Hemen dio errekontza motorearen asmatzailea izan zela

“HIRIA, NIRE AUTOA GABE!”

Irailaren 21 ean, 1.B eta 1. C geletako ikasleek **Mugikortasun jasangarriaren aldeko ibilaldi** batean parte hartu zuten, txirrindaz. Ekitaldi hori “**Kotxerik gabe**” kanpainaren barruan antolatu zen Eskolako **AGENDA 21** proiektuan sartuta dauden Gasteizko 11 ikastetxek parte hartu zutelarik.

Bi ibilaldi desberdin jarraituz ikasleak Plaza Berrian elkartuko ziren, ekitaldi labur bat egiteko eta bertan ikastetxe bakoitzean mugikortasun jasangarriaren inguruan asmatu-rik leloak edo esloganak irakurri zituzten.

- LURRA KUTSA EZ DADIN, PEDALEI ERAGIN!
- APARKA EZAZU KOTXEA, ETA IGO ZAITEZ BIZITZARA!
- BIZIKLETA ESKUAN, KASKOA BURUAN, TA IBILI MUNDUAN
- ONENA, KOTXEAK GARAJEAN, ETA BIZIKLETAK KALEAN!
- KOTXE GABERIK, MUNDUA BIZIRIK!
- KOTXEA UTZI, ETA BIZIKLETARI EUTSI!!
- KOTXEA UTZI, KERIK GABE BIZI!



Betagarri: “Jendeak gu ezagutzea zaila

Betagarri talde ospetsuarekin hitz egin dugu. Urte hauetan izan duten bilakaera azaldu digute. Iker bateriajolea izan da bozeramailea.



Mendeberr: *Noiz sortu zen Betagarri taldea?*

B: Orain dela hamar bat urte, 1992an. Lagun talde bat zen: Iñaki abeslaria, Aitor gitarrajolea eta lehen Gontzo eta Txakal.

M: *Nola bururatu zitzaizuen Betagarri izena?*

B: *Betagarri* blusa koadrila bat izan zen. Gure lagun baten aitona eman zion izen hori eta hortik aukeratu genuen.

M: *Beti izan zarete zuek taldean edo beste batzuk ere ibili dira?*

B: Ni Iker naiz bateriajolea eta nire taldekideak Iñaki abeslaria, Aitor Aguirre eta Aitor Ruiz de Argudo kitarranjoleak Pablo Rodríguez bajujolea, Unai Lobo tronpetajolea, Mikel Sanz tronboijolea, David Gabiña saxojolea eta Triku produktorea dira. Lehen beste pertsona batzuk pasa ziren taldetik; neroni taldea sortu eta bost urte geroago sartu nintzen.

M: *Zenbat urte zenituzten taldean sartu zinetenean?*

B: Gazte ginen. Gutxi gorabehera 22 edo 23 urte izango zen batez bestekoa. Batzuk gaztetxoagoak ziren, 17 edo 18, Miguelito, adibidez.

M: *Beste talde batzuetan jotzen edo jo al du inork?*

B: Abeslariak, Gontzok eta Aitorrek beste talde bat zuten hasieran, *Erbesteak* deitzen zena, baina gero konturatu zirenean izen hori ez zela egokia aldatu egin zuten. Beno, nik ere beste talde batzuetan jo dut, baina lehenetasuna *Betagarri* da guztiontzat.

M: *Zer sentitu zenuten lehenengo aldiz eszenatoki batera igo zinetenean?*

B: Hasierako kontzertuetan, edozein talde bezala, kristoren gogoarekin hasten zara, ilusio handia geneukan. Gogo handiarekin joaten ginen edozein lekutara deitzen zigutenean.

M: *Noizbait pentsatu al duzue taldea desagitea?*

B: Ez, batzuetan goraberak badaude, bai, adibidez kitarranjole batek ume bat izan du eta taldean jotzeari utzi

izan da, baina orain kontzertuz kontzertu gabiltza”

behar izan dio, baina horregatik ez dugu taldea desegin; orain beste bat sartu da.

M: Pentsatu al duzue beste diskoren bat ateratzea?

B: Datorren urteko udaberrirako, martxorako edo apirilera-ko, beste disko bat ateratzeko asmoa dugu.

M: Zergatik grabatu zenuten disko bat zuzenean?

B: Beno, batez ere disko dezente geneuzkalako eta disko bat zuzenean grabatzeko garaia zela eta guk gure musika ondoen zuzenean agertzen dugula uste dugulako.

M: Gustatzen al zaizue zuen abestiak entzutea?

B: Niri ez. Beno, grabatu eta gero, bai, nola geratu den ikusteko. Pentsa urtean zehar 60 kontzertu gutxi gorabehera ematen ditugula, eta gero berriz etxean entzutea...

M: Zuei gertatutako gauzak abestietara eramaten dituzue?

B: Gure abestietako hitzak edozein pertsonari gerta dakizkiokeen gauzak dira. Orain gertatzen ez den gauza bat soldaduska da, baina lehen egin behar izaten zenez, kritikarako erabiltzen genuen. Askotan, abesten dugunak badu erlaziorik gertatzen denarekin.

M: Asko kostatu al zaizue zaudeten lekuraino ailegatzeari?

B: Jendeak gu ezagutzea kostatu zaigu. Beharbada 10 urte daramatzagulako kontzertuz kontzertu daukagu arrakasta. Furgoneta bat erosi behar izan genuen; hilero ordaindu behar dugun lokal bat daukagu, instrumentuak erosi... Horrek guztiak diru piloa balio du; beraz, gauden lekuraino iristea ez da erraza izan.

**M: Azkeneko diskotik zein da gehien gustatzen zai-
zuen abestia?**

B: “Zure inguruan” polita da, “Gora beherak” ere bai, “Hankak mahai gainean”...

M: Zuek orain zaretena izan nahi zenuten txikitan?

B: Ez dakigu. Hori ez da pentsatzen, beno, pentsa dezakezu musikaria izatea, baina musikan arrakasta izatea edo musikari esker bizitzea zaila da gaur egun.

M: Txikitan zein zen zuen talderik gogokoena?

B: Niri geihen gustatzen zitzaidana “Red Hot Chili Peppers”, hip-hop taldeak, “Nirvana” etab. ziren.



Esti García:

“Guztiok futbola dugu maite”

Ale honetan Esti Garciari futbolariari egingo diogu elkarrizketa, Esti 20 urteko neska bat da eta Aurrera futbol taldean jokatzen du.



M-Zenbat urterekin hasi zinen futbolean jokatzen?

E-10 urterekin hasi nintzen ikastolan eta 2 urte egin nituen mutilekin. Geroago, 12 urterekin, Abetxuko futbol taldera pasatu nintzen eta han beste 2 urte egin nituen. Ondoren, urte bat Ekialdeko futbito taldean egon nintzen neskekin jolasten, ezin nuelako mutilekin jarraitu eta 15 urterekin Aurrerako nesken taldera pasatu nintzen etagaur arte; beraz, 11 urte daramatzat futbolean.

M-Zure gurasoek hasieran ezetz esan zuten edo lagundu zizuten?

E-Beti lagundu izan didate.

M-Betidanik gustatu zaizu futbola edo txikia zinenean beste gauza bat gustatzen zitzazun?

E-Futbola betidanik gustatu izan zait, baina futbolean hasi arte, karate egiten nuen

M-Zein futbol taldean hasi zinen?

E-Abetxuko ikastolan.

M-Zenbat urte daramazu Aurrera futbol taldean?

E-Aurten zazpi urte egin ditut eta orain taldeko kapitaina naiz.

M-Zein da zure postua?

E-Erdialdean, baina atezain jokatzea ere egokitu zait.

M-Noiz entrenatzen duzue, eta zenbat minutu?

E-Astero 3 egun, arratsaldeko zazpi eta erdietatik bederatzietara.

M-Partida ofizialetan non jokatzen duzue?

E-Olaranbe da gure zelaia, baina Bizkaiko, Gipuzkoako,

Nafarroako eta Aragoiko zelaietan ere jokatzen dugu

M-Zein ligatan jokatzen duzue?

E-Gure liga Lehenengo Nazionala da, Superligaren azpitik dagoena.

M-Inoiz irabazi al duzue txapelketaren bat?

E-Txapelketa garrantzitsuena Gipuzkoako liga izan da eta hau dela eta mailaz igo ginen. Gasteiz Cup-eko bigarren postuan lau alditan sailkatu gara eta Mirandako torneo bat ere irabazi dugu birritan.

M-Ondo konpontzen al zarete elkarrekin?

E-Bai, oso ondo. Adin desberdinetako jendea gara, baina guztiok futbola dugu maite.

M-Entrenatzaileak mutilak edo neskak dira? Ondo zaudete beraiekin?

E-Hiru mutil dira: Miguel, Jose eta Asier. Hiru urte daramatzate gurekin eta oso ondo konpontzen gara.

M-Futbolari esker biziko zarela uste al duzu?

E-Ez, ezta pentsatu ere! Orain nesken futbola denon ahotan dago, baina ez du dirurik mugitzen.

M-Zer egiten duzue Gasteizko jendeak ezagutzeko?

E-Gasteizen jende gutxi daki gure taldea lanean ari dela, baina aurten egutegi bat egin dugu, arropa gutxiarekin eta komunikabideetan agertu gara, irratietan, eta telebistan eta honekin gutaz zerbait gehiago hitz egitea lortu dugu.



Mendebaldeko Elkartasuna El Salvador eta Guatemalarekin



Urriaren erdi aldean, El Salvador eta Guatemala herrietan Stan ekaitz tropikalak eragindako kalteak eza-gutu ondoren, Mendebaldea institutuak elkartasun kanpaina bat anto-latu zuen dirua biltzeko zituzten beharrei aurre egiteko.

Ikasle eta familieek elkartasun eta solidaritatea handia adierazi dute, guztira **2.803,35€** jaso direlarik, eta bi zatitan banatu da: erdia Guatemalarako eta beste erdia El Salvadorrerako eta horretarako zabaldu-tako kontuetan sartu da.

Oso ondo iruditu zaie, baina guk badakigu guri horrelako hondamendi natural gertatuz gero, beraiek berdin jokatuko luketela; horregatik, espero dugu sortutako arazoren bat konpontzeko baliagarrria izatea.

Eskerrik asko eta horrela jarraitu, oso ondo egon baita.



Solidaridad de Mendebaldea con El Salvador y Guatemala

A mediados de octubre, después de conocer los daños ocasionados por la tormenta tropical Stan, el instituto Mendebaldea organizó una campaña de solidaridad para recaudar fondos para hacer frente a las necesidades.



El alumnado y las familias han mostrado una gran solidaridad y se han recaudado **2.803,35** euros. La mitad de la cantidad se ha destinado a Guatemala y la otra mitad a El Salvador, y se han ingresado en las correspondientes cuentas corrientes abiertas para tal fin.

Se han mostrado muy agradecidos, pero nosotros sabemos que si el desastre natural hubiese ocurrido en nuestro entorno ellos habrían procedido del mismo modo; por eso esperamos que la cantidad enviada les sirva para paliar algunos de los problemas.

Gracias por vuestra ayuda y seguid siendo solidarios.



Joana Torrecilla:

“Kirol hau asko gustatzen zait”

Joana Torrecilla oso neska jatorra da. Mendebaldea institutuan ikasten du, hamabost urte ditu eta Gasteizen bizi da. “GIMNASIA ERITMIKOA” egiten du, eta urte asko daramatza. Galdera batzuk egin dizkiogu kirol honi buruz.

Mendeberrri: *Zenbat urterekin hasi zinen gimnasia erritmikoa egiten?*

Joana: Sei urterekin hasi nintzen.

M.: *Zergatik hasi zinen kirol honetan?*

J.: Asko gustatzen zitzaidalako, telebistan ikusten nuen eta polita iruditu zitzaidan.

M.: *Gimnasia erritmikoa egiten jarraitzen duzu?*

J.: Bai, eta urte askotan jarraitu nahi dut.

M.: *Zein motatako arropa janzten duzu?*

J.: Praka motza, kamiseta tiranteduna, kalentadorea eta guzti horrek dena beltza izan behar du.

M.: *Etxean praktikatzen al duzu?*

J.: Batzuetan berotzeko ariketak egiten ditut, baina kirol hau ezin da etxean praktikatu.

M.: *Inoiz irabazi ahal duzu lehiaketarik? Zenbat?*

J.: Lehiaketa batzuk irabazi ditut, baina zehazki ez dakit. Baina domina eta kopa asko ditut.

M.: *Heldua izaten zarenean, uste duzu urrunera heldu zaitzakeela?*

J.: Ez dakit, hori etorkizunean ikusiko da, baina gustatuko litzaidake.

M.: *Zergatik aukeratu duzu kirol hau eta ez beste bat?*

J.: Gimnasia erritmikoa nire gustoko kirola delako eta asko gustatzen zaidalako dantzatzea.



M.: *Zein ariketa gustatzen zaizu gehien?*

J.: Egiten ditugun dantzak.

M.: *Jende aurreko saioen batean erori al zara?*

J.: Bai, egun batean erori nintzen salto bat egiterakoan, baina altxatu nintzen eta jarraitu egin nuen.

M.: *Lehiaketa garrantzitsuren batean inoiz parte hartu al duzu?*

J.: Bakarrik Euskadiko txapelketara joan nintzen.

M.: *Zenbat ordu ematen dituzu?*

J.: Aste osoan 9 ordu ematen ditut.



DI-DA batean

1. **Uda ala negua?** Uda.
2. **Hondartza ala mendia?** Hondartza.
3. **Alaves ala Atihetik?** Alaves.
4. **Kolore bat?** Larrosa.
5. **Janari bat?** Janari txinatarra

TXISTEAK

- Zer esaten dio pekatsu batek beste pekatsu bati?
- Puntuetara irabazten dizut.

Gizon bat ahate batekin doa kalera. Eta esaten dio gazte batek:

- Nora zoaz txerri txorrekin?

Eta gizonak erantzuten dio:

- Ez da txerria, atea da.
- Zu isildu! Ni ahatearekin hitz egiten ari naiz eta.

Zoroetxe batean:

- Zoratuta zaude, ezta?
- Zoratuta zu egongo zara. Ziurtatuko dizut. Zer daukat esku barruan?
- Elefante bat.
- Ez du balio, ikusi duzu nola hartzen nuen.

Gizon bat medikuarenera joan zen eta esan zion:

- Medikua jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez daukate usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- PRRRRRRRRRRRRRRRR!!!
- Hori larria da. Ebakuntza bat behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean!

Zein izen dute Txinako hiru pertsona pobreenek?

- Txinlu / txingas / txinagua.

Maisuak Jaimitori galdetu dio:

- Jaimito, zenbat dira bi gehi bi?
- Auskalo! Ez badizkidazu datu gehiago ematen...!

Bi emakume elkartu dira eta batek besteari esan dio:

- Nire senarra aingeru bat da.
- Hau zortea!- erantzun dio besteak- Nirea oraindik bizirik dago.

Badoaz lau etorkin batel batean, Mediterraneo itsasotik eta hauetariko batek

NAN bat aurkitu du, NAN-a Leonardo di Capriorena da.

Heldu dira laurak hondartzara, baina poliziak gelditu egin ditu. Lehenengoari poliziak galdetu dio:

- Pasaportetik ba al daukazu?
- Ez.

- Orduan etorri nirekin.

Bigarrenari eta hirugarrenari gauza bera egin die.

Baina laugarrenarengana heltzean:

- Pasaportetik ba al daukazu?
- Nik NAN hau daukat.

Poliziak irakurri du NAN-a eta bertan jartzen zuen:

Leonardo di Caprio. Orduan poliziak, telefonoa hartzen du eta:

- Kapitaina, Titanic-a hondoratu ala erre egin zen?

Bilatu sei kirol hizki salda honetan:

s	a	s	n	f	j	d	j	c	b	k	s	u
a	s	j	f	k	h	u	y	i	r	v	a	E
s	k	i	g	e	r	i	k	e	t	a	e	f
k	i	d	s	g	o	l	f	k	h	u	f	u
i	a	j	e	e	p	k	d	e	i	a	z	t
b	h	e	b	g	r	m	j	z	o	p	l	b
a	m	i	j	g	a	f	h	z	l	s	i	o
l	l	s	n	o	p	i	a	i	y	l	f	l
b	h	s	p	h	a	m	e	f	i	k	a	a
i	e	s	k	u	b	a	l	o	i	a	u	p
a	h	m	p	z	m	l	g	n	o	o	z	i
l	h	k	t	e	n	i	s	a	k	d	e	w

SUDOKU

Osatu kuadro hau kontuan izanik eskuinetik ezkerrera eta goitik behera ezin direla errepikatu eta ezin dutela kuadro txiki-takoak besteekin errepikatu ezta zutabetakoekin ere:

6			4	9			1
		5				4	
				6			8
3			1	8			4
		4			1		
8			7	4			2
	3						
		8			9		
4			6	2			7

Bilatu lau ezberdintasun hauetan :



Euskararen erabilera Mendebaldean

Euskara milurteko hizkuntza bat da, baina gure erruz galtzen ari da.

Kontaezinak dira euskarak irabazi dituen borrokak belau-naldiz belaunaldi: frankismoaren debekuarengatik, adibidez. Debeku honen ondorioz, garai horretako gazteek ezin izan zuten euskara ikasi eta honek dakarren arazoa gure gurasoen ezjakintasuna da.

Baina gaur egun gure erruz hizkuntza hau galtzen ari da, ez baitugu erabiltzeko ahaleginik egiten.

Euskara gure institutuan oso gutxi erabiltzen da. Ikasle gutxi batzuek bakarrik erabiltzen dute hizkuntza haien eguneroko eginkizunetan.

Bestalde, irakasle eta ikasleen arteko erabilera handitu egin da. Baina oraindik ere badaude irakasleengana erderaz zuzentzen diren hainbat ikasle.

Arazo hau dela eta, gure hizkuntza bultzatu eta indartzeko irakasle guztiak hartu beharko lukete ardura. Ilido beretik ikasleek lagun lezakete euskara erabiltzen eta babesten, gure hizkuntzak bizirik iraun dezan.

Azkenik, iritzi artikulua honi bukaera emateko, esan beharra dago pertsona gutxi garelako hizkuntza hau gogoko dugunok eta erabiltzen dugunok eta euskara defendatu behar dugula guztion artean jo ta ke.



Denbora pasen erantzunak

HIZKI SALDA

s	a	s	n	f	j	d	j	c	b	k	s	u
a	s	j	f	k	h	u	y	i	r	v	a	E
s	k	i	g	e	r	i	k	e	t	a	e	f
k	i	d	s	g	o	l	f	k	h	u	f	u
i	a	j	e	e	p	k	d	e	i	a	z	t
b	h	e	b	g	r	m	j	z	o	p	l	b
a	m	i	j	g	a	f	h	z	i	s	i	o
l	i	s	n	o	p	i	a	i	y	l	f	l
b	h	s	p	h	a	m	e	f	i	k	a	a
i	e	s	k	u	b	a	l	o	i	a	u	p
a	h	m	p	z	m	l	g	n	o	o	z	i
l	h	k	t	e	n	i	s	a	k	d	e	w

SUDOKU

6	8	3	4	2	9	5	7	1
9	2	5	8	1	7	4	6	3
1	4	7	3	6	5	2	8	9
3	6	2	1	9	8	7	5	4
5	7	4	2	3	6	1	9	8
8	9	1	7	5	4	6	3	2
7	3	6	9	4	1	8	2	5
2	1	8	5	7	3	9	4	6
4	5	9	6	8	2	3	1	7



ESTORES / ESTOREAK
 CORTINAS / GORTINAK
 TAPICERÍAS / TAPIZTEGIAK
 EDREDONES / BURURDIAK
 FUNDAS NORDICAS / ESTALKI NORDIKOAK
 TEJIDOS IGNIFUGOS / EHUN ERREGAITZAK

**En Lakua "sin ir más lejos"
 Lakuan bertan, beste inora joan gabe**

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe
 Pida presupuesto sin compromiso

**Zure etxebizitza jantziko dugu
 Vestimos tu hogar**



**TAPICERÍAS
 GASTEIZ**

C/ Pamplona/Iruña, 13 Tel.: 945 17 51 87



FOTOCOPIAK

Juntas Generales, 59 (acceso por Arriaga)
 01010 Vitoria-Gasteiz
 Tel. / Fax: 945 172 687
 E-mail: gurpil@ctv.es

IMPRESIÓN DIGITAL REP
 RODUCCIÓN DE PLANO
 S/PLOTTER HENCUADERN
 ACIONES PLASTIFICAD
 ON MATERIAL DE OFICIN
 A Y ESCOLAR REGALOS F
 OTOCOPIAS DE DIAPOSI
 TIVAS NEGATIVOS FAX...

**MIMATUKO
 ZAITUGU**

HORARIO ININTERRUMPIDO

7:45 - 20:00

RECOGIDA Y ENTREGA GRATUITA A EMPRESAS



Ikasturte honetan **eraman** Gazte-txartela edonora

%15

ERAINOKOAK

ZINEMETAN

%20

ERAINOKOAK

LIBURU-DENDA
ETA PAPER-
DENDETAN

%50

ERAINOKOAK

KIROL
INSTALAZIOETAN

%30

ERAINOKOAK

MODAN

%10

ERAINOKOAK

INFORMATIKA-
DENDETAN

%50

ERAINOKOAK

MUSEOETAN

IKASKETA-
BIDAJETARAKO
ASISTENTZIA-ASEGURUA

DOAN

Esha ezazu



CAJA LABORAL
ELISKADIKO KUTXA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

NATURA BILA DEPARTAMENTO DE CULTURA